

Noaua!!!



Futbol Eskolan izena emateko epea astelehenean irekiko da



Kontxako Bandera

Belaunaldi ezberdinetan eskuratu den saria

Marije

Arropa denda



Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

FRANTSSES HIZKUNTZA klaseak Usurbilen!!!

Iaz Usurbilen Frantses klaseak hasi ziren, 20 ikasleekin, izandako arrakastarengatik, aurtan ere irailaren 13an hasiko gara gainbegiratzan, beraz hilabete osoan batu zaitezte!!

Zertxobait jakin, ahaztu eta berreskuratzeko gogoz bazaude, hauxe da zure aukera.

Frantzia hortxe bertan dago.

Hitz egitea ahalbidetuko dizun oinarrizko maila lortu nahi baduzu, garaiz zaude!

Maila guztientzat klaseak aurtan KONTSEJU TXIKIN, izango dira (Etxebeste 15) eta daukazu mailaren arabera klaseak astelehenetik ostegunera 18:00 eta 21:30 bitartean izango dira. Hau jakin dezagun, test txiki bat egingo da maila edo ezagutza neurtzeko.

Irakaslea Hizkuntza eskola ofizialean eta L' Alliance française (C2) diplomatua

Informazio gehiagorako: 609 75 47 99



Jose Etxabe
TAXI ZERBITZUA (24h)



677 37 34 66
943 36 69 69

San Ignacio 3, 2.D USURBIL

K M D N
h i z k u n t z a k

English courses

- Talde txikiak
- Gazte eta helduentzako ikastaroak
- Cambridgeko azterketak prestatzeko

Matrikulazio epea zabalik
Ortutegia 16:00h -20:00h

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402

Albisteak iruditan!!

Kantu Taldeak liburuxka plazaratu berri du

Usurbil Kantuz du izena Usurbilgo Kantu Taldeak plazaratu berri duen liburuxka. Ia 200 kanturen hitzak biltzen ditu bere baitan. Gainera, zalantzak argitzeko, hainbat hitzen esanahiak erantsi dituzte. Kantatzen ari garen hori, hobeto uler dezagun.

Aurrerantzean, liburu honetan oinarrituko dira kantu-jirak. Honi lotuta, irailaren 25ean frontoian elkartzeko hitzordua jarri dute. Ohi bezala, arratsaldeko 19:00etan hasiko dira kantuan.

Hiru eurotan salgai

“Usurbil Kantuz” liburuxkak hiru eurotan daude salgai, Lizardi eta Laurok dendetan eta baita NOUA!ko bulegoan ere.



IRAILAREN 25EAN KANTU-JIRA EGINGO DA, 19:00ETAN FRONTOIAN.

Noaua!!

NOUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatoratzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Aitor Eleta, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Garazi Iturralde, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Maddi Galbete, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

MATRIKULAZIO GARAIA EUSKALTEGIAN _____ **5. OR.**

PATXI MAIOZEKIN SOLASEAN _____ **6. OR.**

BAXURDE KROSSA, IRAILAREN 19AN _____ **9. OR.**

UDAKO JAIK, IRUDITAN _____ **10. OR.**

KIROLDEGIKO KIROL ESKAINTZA _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

iz Agirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltserria S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO



MAIALEN UNANUE

Ezezaguna zaigu, agian

Duela gutxi gertatu da Frantzian, ijitoen kaleratzea, alegia. Honen harira, duela ez asko ikusi nuen film batez gogoratu naiz. Michael Haneke alemaniarraren “Code inconnu”-z ari naiz.

Eskenatokia: Paris. Nekazari baten semea den Jeanek eskean dagoen Mariari (errumaniarra bera) zimurtutako paper zati bat mesprexuz gainera botatzen dionean hasten da istorioa. Momentu horretan pertsona ezberdinen bizitzek elkar topo egiten dute, euren artean oso ezberdinak izaki. Alde batetik, Amadou dugu, taxilari afrikar baten semea, Jean-en ekintza ikusirik haserretuta, Mariari barkamena eskatzeko esaten diona. Amadouren anaia gaztea gormutua da, eta horregatik, urritasun hori duten pertsonekin lan egiten du. Talde horretan neska txiki bat dago, bere gurasoekin Anne-ren eraikuntza berean bizi dena. Anne (Juliette Binochek interpretatua) Jean-en anaia George-en neskalaguna da, gerra argazkilaria bera, une horretan Kosovon lanean dabilena.

Pertsonaia asko ditu pelikulak, baina ez protagonistarik. Eta ez dago protagonistarik, mundu honetan ez dagoelako protagonistarik. Etxetik irten eta kalean aurkitzen dugun orok du bere bizitza eta bere historia, baita ezer jakingo ez

dugun eta axolarik ez zaigun etorkizun bat ere. Gutako edonor da kalean aurkitzen dugun ezezagun hori: autobus geltokian ikusi dugun pertsona hori gara; ezer gutxi balio dio inori nondik gatozen, nora goazen edo nola izena dugun jakiteak.

Hanekeren berezitasuna haren luzemetraietan errealitatea islatzeko orduan duen “lotsagabekeria” da. Modu sinple batean, errealitatea aztertzen du, ulertu eta, ondoren, guri ulertarazten digu: oso ondo ezagutzen dugun arren, badirudi aurpegira esateko beharra daukagula benetan jabe egiteko ez dela Haneke bera lotsagabea film hori grabatzerako orduan.

Pelikula eszena motz eta azkarretan oinarritzen da, hasiera batean ikuslea aztoratzen dutenak, itxuraz ez baitute elkarrekin zer ikusirik. Normalean film bat ikusten jartzen garenean jarrera pasiboa daukagu, hau da, narrazio osoa mamituta barneratzera ohituta gaude. Alemaniar honek, ordea, hori aldatu nahi du eta lortu ere egiten du. Ikusleak ulertu behar du eszena motz haiek ikusita zein erlazio dagoen atzean bata eta bestearen artean, jarrera aktiboa beharrezkoa du filma ulertzeko.

Errealitatea gordinki islatzen du irudi bakoitzean, egunero pasatzen den eta, badirudi, ohartzen ez garen moduan.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Udal gobernuaren etxebizitza politika: adar jotzea

Alkateak enpresa bat kontratatu du “etxebizitza eskaria eta premia Usurbilen” ikerketa egin dezan.

Udal gobernuak 2009ko otsailean plazaratu zuen “Andatza” aldizkarian esaldi hauek irakur daitezke:

“Orain arte bezala babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea bultzatu nahi du udalak...”

“...hori egitea posible ez bada, etxebizitza tasatuak eraikitzea ahalbidetuko da”.

“Udala jakitun da usurbildarrek denbora asko daramatela Olarriondon eta Ugartondon egingo diren etxebizitza babestuen zain. Zoritxarrez, ordea, udal gobernuak ez du uste itxarondia berehala bukatuko denik.

Eraikitze lanak 2008an hastea espero zen, Olarriondon behintzat”.

“Aurreko legegintzaldian Olarriondoko Plan Partziala onartu zen; ondoren, azken urte eta erdian Urbanizatzeko Jarduketa Programa, Birpartzelazio Proiektua eta Urbanizazio Proiektua onartu dira...”.

“Arazoak arazo, udalak onartu ditu onartu beharreko hirigintza tresna guztiak eta, dagoeneko, ez dago aitzakiarik proiektu hori gauzatzen hasteko”.

Guzti hau orain dela urte eta erdi esaten ziguten. 9 hilabete besterik ez dira geratzen legealdia bukatzeko eta alkateak IKERKETAK eskatzen!!! Bestetik, gainera, babestutako etxebizitzetan inbertitzeko dagoen diru-par-

tidatik ordainduko dena.

2008ko ekainean, ezker abertzalearen eskuorri batean, gobernuaren lehen urtea baloratzen zuena, Olarriondo eta Ugartondori buruzko ondorengo esaldiak irakurri genitzake:

“Argindar faltaren gorabeherak konpondu ditugu”.

“...babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarako behin betiko zerrendak onartu dira... horren (zozketaren) zain zaudeteno, lasaitasuna eskatzea besterik ez zaigu geratzen”.

Jarri dadila lanean behingoz! Obrak hasi daitezela Olarriondon eta Ugartondon!

Usurbilgo Hamaikabat

Etumeta-AEK euskaltegian matrikulazio epea zabaldu dute

Euskara ikasi edo hobetu nahi duenari Etumeta-AEK euskaltegian matrikulatzeko garaia heldu zaio. Epea zabalik dago jada. Ikasketa eskaintza zabala prestatu dute euskaltegikoek hastear den ikasturte berrirako; hizkuntz eskakizunen prestaketak, mintzalagun ekimena, euskalduntze orokorreko ikastaroak... Eta aurten, nobedade bezala, autoikaskuntza ikastaroa.

Aipatu moduan, izena emateko epea zabalik dago. Euskaltegia astelehenetik ostiralera zabalik egongo da; goizez, 11:00-13:00 artean eta arratsaldez, 18:00-20:00 artean. Informazio gehiagorako eta matrikulatzeko badira



IKASTURTE BERRIKO KLASEAK
URRIAREN 4AN HASIKO DIRA
ETUMETA EUSKALTEGIAN.

beste bi komunikazio bide ere: 943 372 001 telefono zenbakia eta usurbil@ae.k.org e-posta helbidea. Ikasturte berriko klaseak urriaren 4an abiatuko dituzte Etumeta-AEK euskaltegian.

Eiñean Guraso Eskolak eta Udalak ikastaro ugari iragarri dituzte

Eiñean Guraso Eskolak eta Usurbilgo Udalak bederatzik ikastaroz osatutako eskaintza prestatu dute 2010-11 ikasturteari begira. Honakoak dira aukeran dauden ikastaroak: laboreak, saloi dantzak, yoga, memoria lantzen, sukaldaritza, eskulana, bitxigintza, sabel dantza eta masajea. Ikastaro bakoitzak bere iraupena izango duen arren, guztiak urrian abiatuko dira.

Irailaren 24an, izen-ematea

Antolatzaileek izena emateko eguna ere finkatua dute jada. Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek irailaren

24an, ostirala, Etumeta-AEK euskaltegiko egoitzara hurbildu beharko dute ikastaro hauetako batean matrikulatzera.

Goizez, 10:00-11:00 artean edo arratsaldez, 17:00-19:00 artean.

Informazio gehiago, telefonoz

Bestela, honako telefono zenbaki honetara ere deitu daiteke: 615 006 535 (arratsaldez deitu: 17:00-19:00).

Ikastaro hauen antolakuntza-lanetan parte hartu nahi dutenek aipatu telefono zenbakira deitu dezakete edo elkarrekin kideekin harremanetan jartzeko gonbita luzatzen dute antolatzaileek.

Helduen Hezkuntza Ofiziala, martxan

Helduen Hezkuntza Ofiziala 18 urtetik aurrerako ikasleei zuzenduta dago eta doanekoa da.

Bigarren Hezkuntzako titulua, esate baterako, bat edo bi urtetan eskura daiteke. Eskolatik jakinarazi dutenez, "18 urte baino gehiago badituzu, graduatua behar baduzu, ikasteko gogoia baduzu edo lehen mailako ikasketak badituzu, etorri gure Usurbilgo zentrura, Agerialde eraikuntzara. Telefonoa: 943 36 12 73/ 943 37 64 43".

Bigarren mailako titulua lortzeko kurtso osoa egin daiteke edo gaika ikasi daiteke (3 ordu egunean, astelehenetik ostiralera): Informatika, Literatura tertulia, Hizkuntzak.

Matrikula egiteko ordutegia goizez, 9:00etatik 13:00era, Agerialde eraikuntzan.

Zumarten astelehenean hasi zen ikasturtea

Joan den astelehenaz geroztik lanean dira Zumarte Musika Eskolakoak. Abian dute ikasturte berria musika instrumenturen batean trebatzen ari diren ikasleek edota abesbatzako kideek.



ZUMARTEKO IKASLEAK, SUTEGIN
IAZ ESKAINITAKO SAID BATEAN.

Otar-Goxo
Elizakgaitzak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

**ARRANDEGIA
PELLO**
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Duela 50 urteko Kontxako Bandera ere Aginagak irabazi zuela ospatuko dute larunbatean

1960ko irailaren 11n bigarrenez Aginagak Kontxako Bandera irabazi zuen. Mende erdia pasa da ordutik eta Aginagako Jai Batzordeak festa eguna antolatu du urteurren egunerako, larunbat honetarako hain zuzen. Bertan izango da, orduko arraunlarietako bat, Mapil etxeko Patxi Maioz. Estropadak eta etxe atariko erria oso gertutik bizi izan ditu. Odolean daramatzala esan liteke, biekin lotura estua baitu. Bere esanetan, “putzu horrek bere grina ematen du arraunerako”. Duela mende erdiko gertakizunak oroitu ditu ondorengo lerrootan.

NOAUA! Igandean taldeetako bat bandera garaipen bandera astintzen ikusiko dugu. Nola oroitzen duzu duela mende erdiko une hura?

Patxi Maioz. Ez zen orain bezala. Bandera espainola ematen zuten, portuan ez Konstituzio Plazan. Oraingo pizgarri hura falta zen moilara etortzean. Pozik ginen, baina bandera falta zen moilan. Konstituzio Plazara joan, eta hango eraikinetik balkoira ateratzen ginen banderarekin. Jendea egoten zen aurrean. Batzuk alde egingo zuten baina beste batzuk pozik ziren.

N. Banderarekin Aginagara egindako bidea nola oroitzen duzu?

P. M. Donostian bazkalduta etorri ginen. Usurbilgo Udalak joateko esan zigun eta joan ginen. Xanpaina atera ziguten.

N. Eta gero Aginagara ospatzera?

P. M. Aginagara etorri ginen. Ez zen ospakizun handirik, Aginaga txikia da horretarako. Baina giro oso ona zegoen. Elkarrekin afaldu genuen. Banderaren bedeinkazioa oso polita izan zen, jende asko bildu zen.

N. Aginagarrek zer nolako harrera egin zuten?

P. M. Aginagarrek txoratuta. Orain ere



1960AN IRABAZI ZUEN KONTXAKO BANDERA, AGINAGAKO TRAINERUAN.

hala dago Aginaga, hemen arrauna asko aitatzen da.

N. Garai hartako egunkariak gordeak dituzu. Zer zioten zuen garaipenari buruz?

P. M. 44 palan nola ibili ginen, atzera arroketa luzeen Aginaga ibili zela, txanpa bikaina izan zela... 37 segundo. Gainerakoan kontu asko. Famatu egiten zuten Aginaga.

N. 1960. urtean, bigarren ez irabazi zenuten Kontxako Bandera. Baina arraunak historia luzeagoa du Aginagan. Zer oroitzapen dituzu?

P. M. 1936-39 inguruan, gure aita zena zegoen bertan. Orduan aginagarrenak denak, Ortzakako Manuel izango zuten soilik Aginagatik kanpokoak.

N. Aginagar bat, Iñaki Errasti, Kaikun dabil. Aurtengoa haiek irabaziko al dute?

P. M. Neure favoritoa berriz ere Kaiku da. Zaila dute, Urdaibai ere ibili da, Castrok azken estropada kristorena egin zuten. Zaila dute baina niretzat favoritok haiek dira. Hauek urte osoan ari dira Kontxarako prestatzen. Horrek asko esan nahi du. Eta ondo prestatzen dira orain.

“Joan eta irabazi”

NOAUA! Nolatan hasi zinen arraunean, oso gazte zinela?

Patxi Maioz. Aginagako festetan bateletan hasi ginen, oso gazte. Gero 1960an txalupa atera behar omen zela eta bi trainerilla atera ginen. Osatu egin behar zen txalupa, hamahiru behar ziren. Zortzi aginagar ginen. Udar hor ibili ginen bueltaka. Goizean goiz lanera eta iluntzean berandu ohera, beti putzuan ibiltzen ginen. Irabazteko esperantzarekin joan ginen Kontxara. Dozena erdi bat ginen lehen urtekoak. Joan eta irabazi genuen.

N. Besteek itsasoa eta zuek ibaia zenuten entrena leku?

P. M. Gu hemen hasi ginen, bi trainerilatan eta mendira korrika. Hamabost egun falta zirela Donostiak txalupen zozketa egiten zuen. Azken bi asteetan Kontxara joan ginen entrenatzera.

Oraingo errukirik ez zegoen. Orain prestatu egiten dira topera medikuekin... Arraunlariak lehorrean prestatu eta txalupa sartzerako arraunean badakite. Garai hartan halakorik ez zegoen.

Patxi Maioz: "Aginagak bi bandera irabaztea kristoren meritua izan zen"

NOAUA! Urteurreneko festa Aginagan larunbatean. Joateko asmorik ba al duzu?

Patxi Maioz. Bai. Duela hiru urte ere han ginen. Joan beharra dago, 50 urte pasa dira eta. Lehengo lagun zaharrak halakoetan ikusten dira gainera. Aginagako gazteei eskerrak eman akordatzeagatik.

N. Zer da zuei guk oroitzea nahiko zenuketena?

P. M. Aginagak bi bandera irabazi izana kristoren meritua izan zen. Gaizki egindako lau etxe, eta txalupa atera Aginagaren izenean... Gehiago ere irabaziko zituen. Tongoa zela eta ez zela jendea harekin atzera bota zen. Bestela, aurrera jarraituko genuen. Olidenek berriz, koadrila osatua zegoela eta aurrera jarraituta bandera batzuk ekarriko genituela proposatu zigun.



1960AN GARAILE IZAN ZIREN AGINAGAKOAK. ARGAZKIA ORDUKOA DA. ABABOR: TIBURTZIO ETXEBERRIA, IMANOL IKUTZA, JOXE MUJIKAZUMETA, MARTIN ERRASTI, JUAN IKUTZA, BAUTISTA OLIDEN. ISTRIBOR: ANTONIO OLIDEN, PATXI MAIOZ, ANTONIO MANTEROLA, RAMON PIKABEA, JOXE RAMON URKIA, RAFAEL ALMANDOZ, JULIAN PIKABEA. PATROIA: KLAUDIO ETXEBERRIA.

Esamesak, apustuak, tongoak...

Arraun munduarekin bat datozen kontuak dira. Esamesak, apustuak, tirabirak... Horiek ere bizi-bizi zeuden duela 50 urte.

NOAUA! Zer zioten zuetaz estropadetan?

Patxi Maioz. Orduan zortzi aginagar ginen, baita donostiar bat Rafael Almandoz eta beste zarauztar bat ere. "Estatu Batuak" izena jarri ziguten, herri desberdinetako arraunlariak izateagatik. Gaurko egunean pentsa arraunlariak nondik eramanda dabilzan.

Hori Orio aldetik etorri zen. Urte hartan, San Juan eta Orio biak bat egitekoan ibili ziren. Baina ez zieten utzi.

N. Apustuetan Aginaga faborito nagusia al zen?

P. M. Baziren bai. Apusturik indartsuena, Aginaga eta Usurbilentzat izan zen 1956an.

Orduan jokatu zen dirua. Aginagak

irabazi zion, baina ez zen harrokeriarik.

N. Tarte handiz irabazi arren, "tongo" egitea leporatu zitzaizuen 1960an.

P. M. Egin zituzten bilerak. Baina estropada irabazi egin zen eta garbi gainera. Estropada irabaziz gero, hor ez dago zer esanik.

ABANTAILA HANDIAREKIN

"37 segundo kendu genizkien lehen jardunaldian eta bigarreanean, zazpi segundo"

Bi jardunaldietan tartearrekin irabazi genuen; 37 segundo lehen jardunaldian eta bigarreanean, zazpi segundo kendu genizkien. Halere, nahi izan bazen, gehixeago kentzeko abiltasuna bazegoen. Baina ez zen komeni. Aurreneko jardunaldian kendua zegoen nahikoa.

Aginagan, Bandera bedeinkatzen



Pikabea taberna parean, Patxi Maioz eskuan irabazitako Kontxako Bandera, bedeinkatzeko egunean.

Kaikukoek usurbildarren artean ospatu zuten iazkoan irabazitako bandera

Eskubitara dagoen argazkia Patxi Maiozek berak utzi digu. Iaz egindakoa da, Kaikuk Donostiako Bandera irabazi berritan. Kortaren mutilek Usurbilen eta Aginagan hainbat geldialdi egin zituzten. Aginagan, Patxi Maiozekin batera erretratu hau egin zuten.

Hiru belaunaldi ageri dira argazkian. Eta hirurak garaileak izan dira Donostian ospatu ohi den estropadan. Ezkerretara, Jose Luis Korta Kaikuko entrenatzailea, 15 bandera eskuratu ditu Donostian. Erdian, Patxi Maioz, 1960an Aginagarekin bandera irabazitakoa. Eta eskubitara, Iñaki Errasti; iaz Kaikurekin bere lehen Bandera irabazi zuen. Igande honetan, bigarrena eskura dezake.



IAZ, AGINAGAN EGINDAKO ARGAZKIA. EZKERRETARA, JOSE LUIS KORTA, KAIKUKO ENTRENATZAILA. ERDIAN, PATXI MAIOZ, AGINAGAREKIN BANDERA IRABAZITAKOA. ETA ESKUBITARA, IÑAKI ERRASTI, IAZ KAIKUREKIN GARAILE IZANDAKOA.

Larunbatean, festa-giroa Aginagan

Aurten 50 urte bete dira Aginagak Kontxako Bandera eskuratu zuenetik. Larunbatean ospakizun eguna izango da Aginagan.

Irailak 11, larunbata

12:00 Meza nagusia.

14:00 Herri bazkaria frontoian.

Ondoren, erromeria: Trikihots.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Igandean, tren zerbitzu bereziak

EuskoTrenek tren zerbitzu bereziak iragarri ditu igande honetarako. Igande honetan, irailak 12, Donostian jokatu den Kontxako Banderaren bigarren jardunaldia ikusteko tren zerbitzu eskaintza indartu du EuskoTrenek. Goizeko 9:00etik 11:30ak arte, sei aldiz igaroko da trena Usurbildik Donostiara. Honako orduotan: 9:24, 9:36, 9:54, 10:24, 10:36, 10:54, 11:24.

Usurbildar gehiago arraun munduan

Usurbildar gehiago ere badira arraun munduan. KAE-1 ligan aritu da Jon Agirrezabala, Santurtzi-Iberdrola taldean.

San Pedron, aldiz, Aitor Alkorta. Garai batean, hainbat usurbildar zeuden San Pedron, aurren, bakarra, Aitor Alkorta.

Bi talde hauek Kontxako Banderako sailkapen proban hartu zuten parte, baina bi taldeek ez zuten sailkatzerik izan.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Irailaren 19an ospatuko den Baxurde Krosserako izen ematea zabaldu dute

Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak hirugarrenez antolatu duen Baxurde Krossa probarako izena eman daiteke jada, herrikrossa.com web orrialdean. Baita irailaren 16ra arte ere Oiardo Kirolegian.

Aldez aurretik izena emanda 8 euro ordaindu behar dira, edo egunean bertan, irteera gunean 9:00-10:30 artean, 10 euro. Goizeko 11:00etan irtengo dira lasterkariak Mikel Laboa plazatik. Kaxkoa, Santuenea, Zubieta edota Kalezar zeharkatu eta hamaika kilometro luzeko ibilbidea osatu ostean, frontoi atzealdean kokatua egongo den helmugara itzuliko dira. Antolatzaileek iragartzen dutenez, proba amaieran sari potoloak izango



IAZKO PROBAN SARITUTAKOAK, MIKEL LABOA PLAZAN.

dira. Zozketak krossean parte hartu helmugara ailegatutako lehen lasterkariarentzat. duten lasterkarien artean, eta sariak

Euskara?
Bai, nahi dut!

ikasi euskara eman izena
Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

usurbil
ETUMETA AEK EUSKALTEGIA
Kale Nagusia, 45 behea. 20170 USURBIL

- AUTOIKASKUNTZA
- MINTZALAGUN
- EUSKALDUNTZE OROKORRAK
- HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN PRESTAKETAK (1.go, 2.garren, 3.garren edo EGA)

943 37 20 01
usurbil@aek.org

Festak, gero eta sendoago Atxegalden

Isilpean egon ohi den Atxegaldeko plaza, urtean hiru egunez, jendearen joan etorri, kantu, oihu, parranda eta festa giroaren lekuko hurbilenean bihurtzen da. Baita aurten ere. Askorentzat oporren amaiera izango zen abuztuko azken asteburuan Atxegaldera joateko arrazoi bat baino gehiago izango zituen.

Jai Batzordekoak azken hileotan prestatzen aritu diren egitarauak osagai anitz zituen. Haur eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak abuztuaren 28an; haurrekin batera gurasoek ere partaide bihurtu zituen aulki jokoa, lasterketa ugari eragindako buruhandiak, txokolata jana...

Lehiaketen txanda izan zen jaietako azken egunean; herriko aizkolariek eskaini zuten lehia ikusgarriarena, baita toka eta patata tortilla txapelketena ere. Gautxoriek ere aurkitu zuten Atxegalden haien parrandarako tokia eta dantzalekua. Hotzikara, Zesatek! eta Ingo al deu? taldeekin ostiraletik larunbat goizaldera arte.

Kantu afaria, arrakastatsua

Euskal kantuen errepertorioari erre-paso ederra eman zioten bestalde, Josune Aranbururekin batera, abuztuaren 28an karpa azpian kantu afari-rako bildu ziren 80 bat lagunek. DJ Larrak egin zuen gainerakoa goizaldera arte. Eta jaiak hasi bezala amaitu ziren; su artifizial koloretsu eta



HAURRAK, GAZTEAK ETA HELDUAK IZAN DIRA PROTAGONISTAK ATXEGALDEN.

burrunbatsu artean. Eta “gora Atxegalde!” oihukatuz Udarregi ikastolako patiora azken traka ikustera bertaratu zirenen txalo artean.

Bideo eta argazki gehiago,
noaua.com web orrialdean

Giro ederra Urdaian, abuztuko lehen egunetan

Jai egun nagusian, San Esteban egunez, eta goizean goiz hasi zituzten auzoko festak Urdaian. Meza nagusiaren ostean, ondoko irudian ageri den moduan, hamaiketako ederraz gozatu ahal izan zuten bertara igotakoek. Une horretatik aurrera, primeran pasatzeko aitzakiarik ez zen falta. Goitik behera bustita amaitu zuten, abuztuaren 3an helduen arteko

jokoetan parte hartu zutenek.

Oilasko biltzaileen txanda izan zen biharamunean. Egun beteko etenal-diaren ostean, bertsolariek girotutako herri afaria, Zubieta eta Usurbilen arteko herri kiroletako desafioa, haur jokoak... ospatu ziren. Eta garrantzitsuena, gau eta egun, giro ederra nagusitu zen Jai Batzordekoek antolatutako ekitaldietan.



JENDE UGARI BILDU ZEN SAN ESTEBAN EGUNEAN.

Festen hurrengo geltokia, Santuenea

Atxegaldek utzitako jaien lekukoa Santueneak hartuko du astebete barru, irailaren 17an. Asteburu bete ekitaldiko egitaraua prestatu dute auzoko Jai Batzordeko kideek. Musika, produktu desberdinen dastatzeak, goizaldean jokoak, herri bazkaria... Hona hemen jai egitarau osoa.

Ostiralean, txupinazoa eta gero ohiko sardin-jana egingo da, txaranga doinuak lagunduta.

Larunbatean, haurrak izango dira protagonista egunean zehar eta Josune kantaria eta Dj Larra gaueko "izarrak".

Igande iluntzean, traka ikuskizunarekin amaituko dira festak.



MUS TXAPELKETA LARUNBATEAN JOKATUKO DA, BAZKALOSTEAN.

Santueneko festak 2010

Irailak 17, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada (jubilatuen taberna aurrealdean).

Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak.

19:00 Sardina jana txarangarekin.

Jarraian, triki-poteoa.

21:00 Musikarien afaria.

Ogitartekoak egongo dira karpan afaldu nahi dutenentzat.

00:00 Kontzertuak: Denis,

Despervicio, Odolaren Mintzoa.

Ondoren, dantzaldia Joxpa taldearekin.

Ondoren, gazte jokoak: altxorraren bila, txerri harrapaketa, globo gerra.

Irailak 18, larunbata

11:00-14:00 Haur jolasak, puzgarriak.

14:00 Haur bazkaria. Bakoitzak berea ekarrita, edariak eta postrea bertan banatuko dira.

16:00 Mus txapelketa (izen-ematea 15:30-16:00).

16:00-19:00 Haur jolasak.

17:30 Txokolatada (Tragoxka parean)

19:00 Buruhandiak.

20:30 Kantu-afaria Josunerekin.

00:00 Dj Larra goizaldera arte.

Irailak 19, igandea

12:00 Toka.

12:30 Hamaiketako jubilatuen taberna aurrealdean.

14:00 Herri bazkaria.

17:00 Herriko dantzarien emanaldia.

Ondoren, dantzaldia Obaneuke taldearekin. Jarraian buruhandiak.

19:30 Piper dastatzea txarangarekin.

21:00 Jaien amaierako traka eta suzko zezena.

Giro ederra Ibai-Ondo elkartearen urteurrenean

Joan den uztailaren 31n sortu zela 50 urte bete zituen Santueneko Ibai-Ondo elkarteak. Goizetik gauera egun osoko festarekin ospatu zuten. Plaka berria jarri eta lokala berrinaugaratu zuten, bazkide, herritar eta alkate Xabier Mikel Errekondorekin batera. Elkarteke hiru sortzaileak ere omendu zituzten: Roman Zulaika, Enrike Uli eta Juan Irazusta. Giro ederrean, ondoko argazkiak erakusten duen moduan.



UZTAILAREN 31KO FESTAN, ELKARTEKO SORTZAILEAK OMENDU ZITUZTEN.

“Ez dago dena egina”

Zubietako bizilagunak, errauste-plantaren inguruan

Zubietan urteak daramatzate kezkatuta orainaz, baina baita bereziki geroaz ere. Gipuzkoako hondakinen kudeaketari buruzko albiste edo gertakariak oso gertutik jarraitzen dituzte, errauste planta eraiki nahi duten gunetik gertu bizi diren zubietarrek. Azken asteotako albisteen haritik, gogorarazten dutenez, bada erraustegiari aurre egiteko tresna eraginkor bat; atez ateko bilketa.

“Ez dago dena egina”. Errauste plantaren egitasmoa bultzatzen ari direnek guztia kontrolpean dutela erakutsi arren, horri aurre egiteko tresna bat badagoela aldarrikatzen dute Zubietan inguruko bizilagunek; atez ateko bilketa. Euren esanetan, “horri eutsi behar diogu”. Hitz hauek jasotzerakoan, Zubietan eraiki asmo duten errauste plantara igotzeko lanak hasi berriak ziren eta zubietar bizilagun taldea Foru Aldundiko ordezkari-tza batekin bildu berria zen.

Diputazioarekin hizketan

Bi aldeen artean uztailean burututako bilera nahi eta behar baino beranduago etorri da zubietarren esanetan, Gipuzkoako hondakinen kudeaketari lotutako gaiak ibilbide luzea baitu. Urteotan kontuan ez dituztela izan salatzen dute Zubietako bizilagunek: “gure etxe ondoan jarri nahi dute errauskailua eta inolako informaziorik eman gabe, existituko ez bagina bezala tratatu gaituzte”.

Informazio eske

Joan den uztailean zubietar ordezkari-tza batek Foru Aldundikoekin biltzeko aukera izan zuen. Hitzordu hartan, zen-



BIZILAGUN TALDE BAT FORU ALDUNDIAREKIN BILDU ZEN UZTAILA PARTEAN.

bait punturen inguruan jarduteko tartea hartu eta nork bere ikuspegia argitu ahal izan zuten. Errauste plantaren egitasmoari buruz urteotan informaziorik ez dutela jaso adierazi zieten zubietarrek Aldundiko ordezkariari. “Berehala informazioa emateko prest agertu ziren, baita elkarrekin gaiaren jarraipena egitera ere”, diote Zubietatik. Hauek ordea ezetza eman zioten proposamen hari. Ondorioztatzen dutenez, “proiektu onarpen bat nahi zuten. Guk argi esan genien informazioa nahi genuela, baina gure aldetik jarraitu nahi genuelako”.

Atez atekoari uko

2009ko martxoaz geroztik abian den eta birziklatze maila %80raino igo duen atez ateko bilketa sistema ere aipagai izan zuten bilera hartan. Zubietarrek argi utzi zuten, “bilketa selektibo zorrotzaren alde gaudela eta gero eta herritar gehiagok ikusten duela hondakinak ezin direla erre eta errauste planta justifikatzen dutenek ere aitortzen dutela, nolabait, hobe litzatekeela hondakinak ez kiskaltzea”.

Horregatik, erraustegiaren aurrean alternatibatzat jotzen duten atez atekoaren alde zeudela adierazi zieten Aldundiko ordezkariari, moratoria eskatzearekin batera. Errauskailuaren beharrik ez dagoela aldarrikatu zuten, beste behin, zubietarrek. Ez dutela ez Zubietan, ez beste inon nahi: “soberan dago. Gai bagara, gure zaborrak ondo antolatuzko. Borondatea behar da”.

Atez ateko bilketa izaten ari den hedapen eta emaitzek errauste plantaren aldeko eragileei min eman dietela adierazten dute Zubietatik, errauskailuari erreferentzia eginez, “beti planteatu izan baitute ez dagoela beste konponbiderik”. Errauste planta egitasmoa nola edo ahala aurrera atera nahi dutela salatzen dute zubietarrek. “Konponbidea planteatutakoan, ukatu egiten dute atez ateko bilketa konponbidea denik. Konponbidea ez dute gustuko, haien eskemetan ez delako sartzen”, adierazi dute zubietarrek.

Aldundikoek moratoria ere ukatu dutela aipatzen dute, zaborregiak 2013rako beteta egongo direla baitiote.

LATAILLADE    **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

TXAPELDUN
TABERNA

razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

Josue
Igeltseritza

 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduak informazio kanpaina abiatuko du laster

Zubietan eraiki nahi duten errauste plantarako bidea egiten hasiak zirela eta, haien kezka adierazteko prentsaurrekoa eskaini zuten Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) mugimenduko ordezkariak uztaila amaieran, Lasarte-Oriako Txitxardin Beltzan.

Azken aldiko gertakariak ahotan hartu zituzten. San Marko Mankomunitatean izan diren ordezkari aldaketek estrategia argia dute atzean, euren esanetan, "Atez Atekoaren aurka eta erraustegiaren alde egiteko". Nola edo ahala erraustegia eraiki nahi dutela salatzen dute, "gutxi batzuen interes ekonomikoak gipuzkoar guztion osasunaren aurretik jarritz. Eta hori finantzatzeko udalerriak urte askotarako ekonomikoki baldintzatuz". Egoera honen aurrean ordea, itxaropentsutzat jotzen dute Debagoienako Mankomunitateak atez ateko bilketa bultzatzeko hartu duen erabakia. "Zorionak eman nahi dizkiegu Debagoienako ardu-



ZERO ZABOR TALDEKOAK, UZTAILEAN EGINDAKO PRENTSAURREKODAN.

radunei eta herritarrei", adierazi zuten GZZ-ko ordezkariak.

Sei urteko moratoria

Sei urteko moratoria eskaerarekin bat egiteaz gain, mundu mailako "Zero Waste" (Zero Zabor) mugimenduko ideia Gipuzkoan ere gauzatu nahi dute. Hori baita GZZ mugimenduaren helburu nagusia.

Iragarri zuten, informazio eta hedapen prozesuari ekingo diote bilguneko ordezkariak Gipuzkoan zehar, udazkene-tik aurrera.

Errauste-plantaren aurkako giza katea igandean, Kontxan

Urtero moduan, Donostiako Estropadei begira Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinakundeak giza katea deitu du igande honetarako, irailak 12. Kontxako Banderari dagokion estropadetako bigarren jardunaldi egunean, goizeko 11:30etan jarri dute hitzordua Alderdi Ederren, hondartzara jaisteko tokian. Errausketari ezetz esan, atez ateko bilketa bultzatzea eskatu eta moratoria galdegin nahi da giza-katearen bidez.



IAZ ERE ANTZEKO MARTXA BURUTU ZUTEN DONOSTIAN.

Sukaldaritza eta baratzei buruzko ikastaro bana antolatu du Usurbiltzen Elkarteak

Joan den udaberrian antolatu zuten lehen aldiz eta ekimenak izandako harrera ikusita, esperientzia errepikatzekotan dira, produktu ekologikoak bultzatzeko herrian lanean diharduten Usurbiltzen Taldekoak. Hiriko terraza eta balkoietan baratzak jartzeari buruzko ikastaroa prestatu dute irailaren 18rako.

Pedro Ferrerok gidatuta larunbat goizez eskainiko da 10:30-12:30 artean, Arrillaga Txikin. Izena eman behar da aurretik, irailaren 13a baino lehen. Prezioa, 12 euro materiala barne.

Sukaldaritza ikastaroa

Janariari probetxu handiagoa atera eta barazkiak prestatzeko beste modu

batzuk ikasi nahi dituenari zuzendutako ikastaroa ere antolatu dute Usurbiltzen Elkarteak.

Irailaren 25ean hasiko da, eta hil bakoitzeko azken larunbatean eskainiko du ikastaroa Igor Gorriti sukaldari usurbildarrak. Goizez, 11:00-13:00 artean eta Agerialden.

Ikastaroaren prezioa 80 eurokoa izango da. Klaseen %90etan parte hartuz gero, 30 euro itzuliko dira. Irailaren 20a baino lehen eman behar da izena.

Izen-ematea

Bi ikastaro hauetan izena emateko bi modu daude. E-mail bat bidali daiteke honako helbidera: usurbiltzen@gmail.com edota telefonoz honako zenbakira deituz: 627 285 904.



MAIATZEAN EGIN ZEN LEHEN IKASTAROA ETA JENDE UGARI ANIMATU ZEN.

Astelehenean zabalduko da Usurbilgo Futbol Eskolan izena emateko epea

Usurbil FT-ko zuzendaritza taldea hastear den 2010-11 kirol denboraldia presatzeko lanetan murgildua dabil. Futbol Eskolako izena ematea noiz izango den zehaztu dute jada; irailaren 13tik 24ra. Epe horren barruan, astelehen, asteazken eta ostiral arratsaldetan, 17:30-19:30 artean Haraneko bulegora hurbildu behar da izena ematera.

2000, 2001 eta 2002 urteetan jaiotako neska-mutilek parte har dezakete Futbol Eskolan. Deialdia 1999. urtean jaiotakoei ere zuzendua dago, baina hauekin aparteko talde bat osatzeko asmoa dute. Usurbil FT-tik jakinarazi dutenez, duela hamaika urte jaiotakoekin talde federatu bat sortu nahi zuten, baina azkenean ez dute



FUTBOL ESKOLAK GAZTE ASKO ERAKARRI ZITUEN IAZ.

aukerarik izan. Edozein kasutan, aparteko taldea osatu arren, Futbol

Eskolakoen dinamika berdina izango dute.

Atez ateko zalantzak argitzen

Nola erabiltzen dira bilketa guneak?

Landa eremuko herritarrentzat dira bilketa guneak. Larrialdi eremu gisa erabili nahi duenak, Udaltzainetan edo Atez Ateko bulegoan galdetu beharko du.

Bidali zure galdera helbide honetara:
atezate@usurbil.net
Galde-erantzun guztiak webgunean:
www.usurbil.net/atezate



Usurbilgo
Udala



Urrian hasiko dira Zirri-Borro tailerreko klaseak

Pintura eta eskulan ikastaroak antolatu dituzte Zirri-Borro tailerrekoek datozen hilabeteotarako. Ikastaroak urrian martxan jarriko dituzten arren, lehenago, datorren asterako bilera deitu dute, izen ematea burutu eta ordutegiak zehazteko.

Irailaren 17an bilera

Bilera datorren astean egingo da, hilaren 17an ostirala, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Zirri-Borro tailerrekoen egoitzan (estankotik behera joanda, San Esteban kalea 4 zenbakian).

Akatsak zuzentzen

Akats bat dago NOAUA!ko egutegian, irailari dagokion orrialdean hain zuzen. Irailaren 5etik 21era gaizki daude egunak jarriak (6tik 22ra behar zuten izan). Irailaren 23tik aurrera, ordea, ondo dago egutegia. NOAUA!ren izenean, barka sortutako eragozpenak.



IRAILAREN 5ETIK 21ERA GAIZKI DAUDE EGUNAK JARRIAK.

Kirol Patronatuak prest du 2010-11 ikasturterako kirol eskaintza

Iraila heltzearekin batera, Kirol Patronatutik ezagutarazi dute jada, datorren 2010-11 ikasturterako kirol eskaintza. Lehorreko kirol jardueri dagokienean, mantentze gimnastika, aerobik, pilates, GAP, spinning, power dunbell edota banakako entrenamendu saioak programatu dituzte astelehenetik ostiralera. Igerian ikasi nahi duten haur eta gaztetxoek aukera zaba-

la izango dute astetartean; hala nola, haurtxoei zuzendutako ikastaroak (6 hilabete-2 urte), ur ludoteka (3-7 urte), uretara moldatzea (3-4 urte eta 5-7 urte) eta igeriketa eskola (8-14 urte). Baita helduek ere, haientzat hastapen, hobekuntza eta igeriketa gidatua izeneko ikastaroak eskainiko baitira. Informazio gehiago, Kiroldegiko telefono zenbaki honetan: 943 372 498.



KIROLDEGIKO EKINTZETAN IZENA EMATEKO GARAIA HELDU DA.

Aginagako VIII. Pilota Txapelketa, abian

Abuztuaz geroztik martxan da Aurtero San Praixkuak arte luzatzen den Aginagako Pilota Txapelketa. Nagusi mailako 25 bikotek izena eman dute zortzigarren edizio honetan.

Aginaga eta Usurbilgo ordezkaritza

zortzi bikoteetan biltzen da: Errasti-Aranalde, Santxo-Aizpuru, Dominguez-Garcia, Huizi-Urruzola, Ander Aranburu-Olaizola, Portu-Katalina, Zabaleta-Zinkunegi eta Mendizabal-Etxeberria. Azken hamaigarrenak jokatu dira asteotan.



Zubietak irabazi zuen Joko Garbiko kopa

Zubietarrek Joko Garbiko kopa irabazi dute uda honetan. Atarratzeko taldearen aurka 40-21 emaitzarekin nagusitu ziren Imanol Aizpurua, Joseba Aizpurua eta Jon Huizi zubietarrak.

Bestetik, "Enrike Abril" erreboteko txapelketa hasi da. Hirugarren jardunaldia igande honetan jokatuko da. 11:00etan, Zubieta-Kapito Harri partida Zubietan bertan.



ABUZTUAN ZE HAR JOKATU ZIREN LEHEN KANPORAKETAK.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789

Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL 943 37 29 37

Agenda !

Irailak 12 igandea

19:00etan frontoian, "Zirko dantza eroa" ikuskizuna. Sarrera doan.

Irailak 16 osteguna

20:00etan "Herio heroi" antzezlanaren irakurketa dramatizatua Sutegin.

Goardiako farmaziak

Irailak 9, osteguna

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 10, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 11, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 12, igandea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 13, astelehena

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 14, asteartea

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 15, asteazkena

De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Irailak 16, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 17, ostirala

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 18, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 19, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Chucua farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)

*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Igande honetan,

"Zirko dantza eroa" frontoian

Datorren astean hasiko da II. Topa Eszenika. Antzerki zein ikastaro ezberdinak ikusteko aukera aparta izango dugu irailaren 16tik 19ra. Baina hori baino lehen, Zirko dantza eroa izeneko ikuskizunarekin gozatu ahal izango dugu. 19:00etatik aurrera, frontoian.



MALABAREAK, AKROBAZIAK...

TRESNA UGARI ERABILTZEN DITUZTE.

Maitasuna itxaroten ez denean agertu ohi da, eta bi aukera daude bakkirik; pasatzen utzi edo haren alde guttia eman. Aukera honetan dabilta istorio honetako hiru pertsonaiak eta maitasunetik maitasun ezara, lagunta-

sunetik etsai izatera murgiltzen diren bitartean beren trebetasuna erakutsiko digute: malabareak, akrobaziak, bi metro altuerako monozikloa...

Zarauzko Euskal Jaietara joateko tren zerbitzu bereziak

Ostegun honetan, irailak 9 Euskal Jaietako egun nagusia ospatuko da, besteak beste Zarautzen. EuskoTrenek tren zerbitzu bereziak eskainiko ditu, egunez eta gaez.

Astegunetako ohiko zerbitzuez gain, ordu hauetan igaroko da trena Usurbildik Zarautzera: 10:31, 11:36 eta 21:31.

Zarautzetik Donostia aldera ere, ohiko tren zerbitzuez gain honako orduotan hartu ahal izango da trena Zarautzen, Usurbila etortzeko: 10:38, 11:38, 21:38. Gaez berriz orduotan. Usurbildik Zarautzera: 23:03, 0:03, 1:03, 2:03, 3:03, 4:03, 5:03. Zarautzetik Usurbilera: 23:38, 0:38, 1:38, 2:38, 3:38, 4:38, 5:38.

Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu da

Larunbat honetan, "Denontzat Leskubide guztiak Euskal Herri osoan" lemapean, manifestazioa burutuko da Bilbon. Usurbilgo Ezker Abertzaleak deialdiarekin bat egin du eta "usurbildarrei bertara joateko deialdia luzatzen diegu. Askatasunik gabe ezer ez garelako. Euskal Herriak munduko beste edozein naziok bezala eskubidea daukalako bere instituzioak sortu eta garatzeko, hori ez da delitu bat, eskubide bat da. Adierazi Euskal Herria!".

15:30ean irtengo da

Usurbildik autobusa aterako da, irailaren 11n, arratsaldeko 15:30ean goiko errotondatik (autobusean apuntatzeko ohiko lekuetan).

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatua. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta opporaldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela ximenea-ekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauze).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatzerak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaila. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai Kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarren apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.
- Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen. Interesatuak Gipuzkoako Taxi Elkartearen eskura dezake informazio gehiago eta eginbeharrekoak 943 46 54 98.

- Txaramunto auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan. Interesatuak deitu: 667715075.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauka, ondo zaindua, beti garajeen egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikotza du eta alfilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeen, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Pertsona baten bila gabilta irailtik aurrera eguerditan haurra ikastolatik etxera ekarri eta bazkaria emateko. Interesatuak deitu 696429899.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Usurbilen urte asko daraman emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, interna moduan edo ordutegi luzerako. Erreferentziakin. 687348223 / 943364310.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratze lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Esperientziadun arkitektura ikaslea udan zehar klase partikularrik emateko prest legoke 10-17 urte bitarteko gazteei. Tf: 628 06 54 70
- Neska gazte bat eskaintzen da udaran zehar klase partikularrik emateko, LH eta DBH mailak. 630 642 352.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gazteak orduka zainzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zainzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osoarako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zainzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo asteazken zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zainzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zainzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zainzeko edo garbiketa lanak egingo nitzuke. Interesatuak deitu 656446835

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zainzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zain arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zainzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zainzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zainzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zainzeko zein etxeko lanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 3 urteko haur baten txamarra berde argi bat galdu dugu parkean. Aurkitu duenak Udaltzaingoa utzi dezala.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Plastikoa txuri batean sartutako artazi batzuk (ardiei ilea mozteko gorazeak) galdu ditut Alkartasuna kooperatiba eta Artzabal artean. 648191911
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontrolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiai kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garrantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatuan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaia, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzatan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoia. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottoak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moral jaioberriei eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.

**Zorionak Lorea!** Abuztuaren

26an egin dituzu 4 urte. Aitaxo, amatxo eta Ikerren partez zorionak eta muxu handi bat!

**Zorionak Ekain!** Irailaren 8an

egin dituzu 9 urte. Etxeko guztien partez zorionak eta muxu handi bat!

**Zorionak Unax.** Irailaren 11n,

8 urte beteko dituzu. Merendola goxoa prestatuko dugu eta primeran pasako dugu. Muxu

handi bat, Oihan, June, Anje eta Aratz.

JAIOTZAK

Oihan Urkijo Aristizabal, uztailak 12.

Leire Ruiz Gonzalez, uztailak 15.

Manex Manterola Latienda, uztailak 19.

Ekhi Garcia de Eulate Soroa, uztailak 22.

Haizea Delgado Sedeño, uztailak 30.

Danel Jimenez Iparragirre, abuztuak 1.

Irati Murua Bereziartua, abuztuak 5.

Martin Blazquez Santamartina, abuztuak 7.

Narao Ikutza Bengoetxea, abuztuak 18.

Itoitz Errekondo Udabe, abuztuak 19.

Markel Mujika Kamino, abuztuak 26.

HILDAKOAK

Juan Jose Camino Etxaniz

Irailaren 2an hil zen, 63 urterekin



Francisco Izaguirre Lopetegui

Abuztuaren 28 an hil zen 87 urterekin



Maria Columba Aguinaga Garin

Abuztuaren 18 an hil zen 78 urterekin



Martina Urdanpilleta Furundarena

Abuztuaren 17 an hil zen 87 urterekin



Manuel Guadix Galvez

Abuztuaren 12an hil zen 79 urterekin.



**IBAI ONDO ELKARTEAK SANESTEBAN
JAIETAKO PLATER TIRAKETAN
LAGUNDU ZUTEN GUZTIEI
ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE**

- Aialde Berri Sagardotegia
- Aizpurua autobusak
- Alamandegi Jatetxea
- Amestoi Txakolinak
- Andazpe Elkarteak
- Arratzain Mendiluze Sagardoak
- Artzabal Supermerkatua DIA
- Astiazaran-Iruin Sagardotegia
- Auto Guria
- Berasategi Kafeak
- Bruño Mariskoak
- Osa Harategia
- Egiotea Sagardotegia
- Eibartrans garraioak
- Eizmendi
- Erroizpe Elkarteak
- Etxebeste Jatetxea
- Euro Label
- D^o Galar Ruiz Ardoak
- Amara Plaza Hotela
- Ingemar
- Irrintzi
- Juantxo Burdindegia
- Labe-goxo Okindegia
- Manterola Gasolindegia
- Manterola Mariskoak
- Maykar Jatetxea
- Peio Arraindegia
- Saltxipi Jatetxea
- San Estebango Jai Batzordea
- Urdaintzi Igeltseritza
- Urtinea Lorategia
- Usurbil Autoak
- Usurbilgo Udala
- Zubillaga

ESKERRIK ASKO!

**Udazkena eta
negua ...
Kanariasen!**

Maspalomasen (Kanaria Handia)

2/3 pertsonentzat apartamentu bat
alokatzen da, igerilekua duen urbanizazioan
(etxe esparrua ikusteko www.playmar.com)

Iraila eta urria, azaroko bigarren
hamabostaldian eta abenduko bigarren
hamabostaldian.

Maspalomas itsasargitik eta Ingelesaren
hondartzatik ordu erdira. Erdialdean,
Yumbo zentro komertziala 5 minutura.

informazioa: 609 75 47 99



**bulegorako altzariak
eta hornidura
paper dendarako
artikuluak**

Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892 · Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com · www.manpel.com



OLARRONDON OSPAKIZUNAK

EZKONTZAK, BATAIOAK
JAUNARTZEAK, FESTAK
DESPEDIDAK...

ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!!!
PREZIO BEREZIAK

OLARRONDOKO GAUAK

Ostiral eta larunbatetan JAI GIROA,
Dj Izania, gaueko 12tik aurrera.

OLARRONDOKO MENUA

· ASTE BUKAERAKOA 30€
edaria, ogia eta kafea barne

OLARRONDOKO KARTA

Aukera ederra!
Arrain, haragi eta itsaskietan
bereztasuna.



OLARRONDO
JATETXEA

Olarrondo Jatetxea
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ 943 360 376
www.olarrondo.es

olarrondojatetxea@gmail.com